



Hezkidetzaren eta genero
indarkeriaren prebentzioa
lantzeko jarduketaren plana

(2019tik 2021era)

1 Justifikazioa eta gure eskolaren testuingurua:

Sexuen arteko desberdintasunak eta genero indarkeria gizartean oraindik ere nabarian ditugu. Azken urteotan berdintasunean oinarritutako konbibentzia bultzatzen dihardugu, estereotipoak eta rolak alde batera utzita. Gure eskola komunitatean aniztasuna nagusia da: kultura eta herri desberdinetako ikasle, irakasle, guraso eta langileak gaude eta denok argi izan behar dugu sexua, kultura, kolorea, arraza, sexu aniztasuna, genero identitatea... errespetatuz eta edozein desberdintasunen gainetik denok komunitate honetako parte garela eskubide eta betebeharrak berdinekin. Etengabe ari gara lanean denok eskola komunitatean integraturik sentitzeko, gatazka eta tratu txarren prebentziorako berdintasunean eta tratu onetan oinarrituz. 2010ean Behatokia sortu genuenetik urtero ikasturteko planean Elkarbizitzari eta Hezkidetzari loturiko helburuak planifikatu ditugu, lan handia egin dugu eta emaitzak ere handiak lortu ditugu, kanpotik etorritako elkarte eta eragileek ere sarri aipatu dute nabaritzen dela hezkidetzaren inguruan egin dugun lan guztia.

- 2010etik dugu eskolan hasiera baten Elkarbizitza arduraduna zenaren figura, eta 2013az geroztik **Elkarbizitza eta Hezkidetz**a arduraduna dena, Bihotz Gorospe. Eta urte horretan sortu zen lehen ELKARBIZITZA PROIEKTUA, urtero berrizten dena.
- OOGan 2013tik dugu berdintasun ordezkaria izendatuta. Momentu honetan Maite Aldekoa gurasoa da.
- Klaustroan 2012-2013 ikasturtean lehen aldiz Hezkidetzaren diagnostikoa egin zen eta Arratiako Mankomunitateko Berdintasun teknikariaren laguntzaz diagnosi horretatik gure eskolako ahuleziak eta indar-guneak identifikatu ziren eta honela hurrengo urteetarako helburuak zehaztu genituen. "Hezkidetz plana 14-17" diseinatu genuen helburu zehatz batzuekin eta hiru ikasturteak pasatu ondoren berriro beste diagnostiko bat egin zen emaitzak ikusteko. Egoera asko aldatu zen hobera.

Honelako ekintzak egin dira ikasturte hauetan zehar:

- Eskolako batzorde ezberdinak: Batzorde hauek ditugu gaiari loturik eta batzorde biziak dira, astero edo hilero batzen direnak: Behatokia, Elkarbizitza batzordea (ziklo bakoitzetik arduradun batez eta hezkidetzako arduradunaz osatua) Elkarbizitzako ikasle ordezkariak, OOGko Elkarbizitza batzordea eta berdintasun ordezkaria.
- Eskolako espazioari dagozkionak: Txoko moreak sortu, komun komunak abian jarri, eskola paisaian emakumeen presentzia areagotzeko erakusketa ezberdinak egin, LGTB kolektiboko jendearen presentzia areagotu...
- Jolas-orduak: patioko erabileraren diagnosis egin ondoren gune berrien antolaketa, jolas lasaietarako lekuak egokitzea, jolas-orduetan liburutegia zabaltzea, jolas berriak erostea (futbolina, txubelaizoa, eraikuntza erraldoiak, egurrezko piezak...), dantza lekuak probatu, jolas-ordu bereziak antolatu, ikasleen parte hartzearekin patio berria diseinatu hezkidetzaren ikuspuntutik eta Udalaren laguntzaz diseinu globala egin (obraren ejekuzioa falta da)
- Taller eta formakuntzak: Mankomunitateak antolatutako formazio eta hitzaldiak klaustroarentzat; HHn hezkuntza afektibo-sexualaren formazioa; ikasleentzat hezkidetzaren berdintasuna, sexu aniztasuna eta genero identitatea lantzeko taller desberdinak mankomunitatearen eta BERDINDU ESKOLAK-en eskutik, baita klaustro eta familientzat ere...

- Ekintza osagarriak: ikasturte osoko ekintza osagarrietan hezkidetza zaintzen dela bermatzea; egun bereziak ospatu eta aldarrikatu: azaroak 25, martxoak 8, maiatzak 17, Elkarbizitza egunak; gonbidatuak ekartzean emakumeen presentzia edo LGTB kolektiboko jendearen presentzia areagotzea (Emakume kirolariak, emakume idazleak, Yogurinha Borova...); Emakundeko autobus morearen bisita, Lasarte aretoan gaiari lotutako emanaldiak...
- Dokumentuak eta materiala: Eskolako dokumentu eta idazkiak... hezkidetza ikuspuntutik errebisatu eta egokitu; gure Curriculuma, programazioak eta gelako eta liburutegiko materialak aztertu eta hautatu ;Hezkidetzaren inguruko ipuin bilduma kutxa ibiltaria geletatik ; Tutoretza planean hezkidetza gaia txertatu; tutoretzetarako material berezia eta egokitua sortu...
- Familiak: Etxeko ohituren inguruko inkesta bat pasatu da familietan bi aldiz; Mankomunitateak antolatutako formazio eta hitzaldiak; familientzat zine-forum-ak; sentsibilizaziorako ekintzak; hezkidetza, berdintasuna, sexu aniztasuna eta genero identitatea lantzeko tallerra BERDINDU-ren eskutik, web orrian informazio eguneratua izan, eskuorri informatiboak bidali dira etxeetara gaiaren inguruan...
- Beste eragile batzuekin harremanak: Udala, Mankomunitatea, B06, Igorreko Zastaparrak aisirako taldea, Institutua, Arratiako beste eskolekin, Guraso Elkartearekin etengabeko harremana izan.

Aurreko ekintza guztiak ikusita, argi ikusten da gure eskolan Hezkidetzaren inguruan ardura eta sentsibilitate handia dagoela eta honetan sakontzen jarraitzeko premia eta interesa dugula. Gure indarrak bideratzeko eta zuzentzeko beharrezkoa dugu proiektu baten inguruan lan egitea dauden ideia eta asmo guztiak biltzeko eta gidatzeko. Momentu honetan sentsibilizazioa guztiz eginda dugun arren eta gauzak asko hobetu diren arren **sakontze lana egin nahi dugu batez ere familiekin** zailena iruditzen zaigu eta familietara heltzea. Gehien bat klaustroarekin eta ikasleekin egin ahal izan dugu lan eta gure eskolan kultura ezberdinetako familia ugari dugu eta hor hutsunea ikusten dugu sarritan ez dutelako eskolako formazio edo tailerretan parte hartzen. Eurengana heldu nahi dugu.

Hau lortu nahi genuke datozen ikasturteetan:

- **Hezkuntza komunitate osoaren baina batez ere familien inplikazioa bultzatzea.**
- **Familia guztietara berdintasun eta hezkidetzaren baloreak heltzea eta etxeetako ohituretan aldaketak egotea.**
- **Familia guztientzat hezkidetzaren eta berdintasunaren formazioak heltzea, eskolan parte hartzea.**
- **Orain arte egin den lan guztia sakontzea eta ondo finkatzea gure eskolaren ezaugarri gisa, gure eskola hezkidetzaileraren delako bermatuz.**

2. Helburu orokorra:

Hezkuntza-komunitate osoan baina batez ere familietan hezkidetza zaindu eta genero-indarkeriarekin amaitzeko sakonketa lana egin.

3. Helburu espezifikoak:

3.1. Elkarbizitzako batzorde ezberdinak eta Behatokia hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentziorako proiektuaren lanketan bilgunea izaten jarraitzea.

3.2. Familientzat hitzaldi eta eskolak eskaintzea euren parte hartzea areagotuz, eskolara ere euren ekarpenak egitera etortzea batez ere kolektibo batzuk.

3.3. Ikasle, irakasle eta hezkuntza komunitate osoak genero indarkeriaren aurkako jarrera kritikoa izatea eta hezkidetzaren alde jokatzeko.

Helburu espezifikoak	Ekintzak	Denboralizazioa 2019-2020	Arduraduna	Adierazleak
3.1. Elkarbizitzako batzorde ezberdinak eta Behatokia hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentziorako proiektuaren lanketan bilgunea izaten jarraitzea.	<p>Berdintasunaren inguruko ekintzak proposatu ikasturteko planean txertatzeko. Aztertu Igorren zenbat kale, parke edo plazak daukaten emakumeen izena. Udalari Igorreko emakume garrantzitsuen baten izena jartzea proposatu eta baita herriko sarreran "Igorreko herriak ez du onartzen jazarpen sexistarik" kartela jartzea ere.</p>	<p>Ikasturte hasieran</p>	<p>Elkarbizitza arduraduna</p>	<p>Behatokiko aktak</p> <p>Ikasturteko Planak eta memoriak.</p> <p>Udalarekin egindako bileren aktak.</p>
	<p>Memoria eta Plana baloratu eta iradokizunak jarri eta honetarako saioak antolatu.</p>	<p>Ikasturte hasieran</p>	<p>Elkarbizitza arduraduna Zuzendaria</p>	<p>Behatokiko aktak</p> <p>Ikasturteko Planak eta memoriak.</p>
	<p>Bereiziki azaroaren 25 eta martxoaren 8ko egunetarako ekintzak proposatu.</p>	<p>Ikasturte hasieran</p>	<p>Elkarbizitza arduraduna</p>	<p>Ekintzen ondoren egiten ditugun memoriak.</p>
	<p>Patioko obra hasten den bitartean jolas-ordu berezi gehiago antolatu.</p>	<p>Ikasturtean zehar</p>	<p>Elkarbizitza arduraduna</p>	<p>Antolaketa honetan ikas-komunitatearen ordezkari desberdinek parte hartzea.</p> <p>Patioko espazio eta erabileren aldaketa.</p>
	<p>Ikastetxeko ikasleen ohiko gatazken datuak genero ikuspegitik aztertu.</p>			<p>Genero-ikuspegitik identifikatutako gatazken zerrenda.</p>

Helburu espezifikoak	Ekintzak	Denboralizazioa 2019-2020	Arduraduna	Adierazleak
3.2. Familientzat hitzaldi eta eskolak eskaintzea euren parte hartzea areagotuz, eskolara ere euren ekarpenak egitera etortzea batez ere kolektibo batzuk.	<p>Guraso Elkartekoekin adostu saio batzuk ematen dituzten Guraso Eskoletatik testu pedagogiko baten inguruan aritzeko gai honekin lotuta. Tertulia dialogikoak beste kultura batzuen inguruan, beraien esperientziak abiapuntua izanda. Gure kasuan musulmana:</p> <ul style="list-style-type: none"> • zapiaren erabilera • Ramadama • Emakumeen eskubideak eta betebeharrak euren herrialdeetan. 	Hiruhilabetean behin.	Zuzendaritza Mankomunitatea	<p>Ekintzen ondoren egiten ditugun memoriak.</p> <p>Kultura ezberdinetako emakumeen parte hartzea.</p>
	<p>Beste herrialdeetako emakumeei beraiek prestatutako tailerrak antolatzeko aukera eman.</p>	Kultur astean	Zuzendaritza, kanpoko familiak	<p>Ekintzen ondoren egiten ditugun memoriak.</p> <p>Kultura ezberdinetako emakumeen parte hartzea.</p>
	<p>Bidelaguna Proiektuan parte hartzea familia horiei laguntza eskainiz, hizkuntzarekin eta hemengo ohiturekin.</p>	Urte osoan zehar, ikasleekin astero eta gurasoekin hilero.	Zuzendaritza, ikastezeko aholkularia eta tutoreak.	Ikasturteko planak eta memoriak
	<p>Guraso Elkartetik kanpoko ekintzetan parte hartzeko aukera ematea diru laguntzak lortuz (etorkinekin batez ere). Posiblea ez bada guztiekin egitea urte osoan, behintzak hiruhilabete baten .</p>	Urte osoan astero.	Zuzendaritza, udala, Guraso Elkartea.	Guraso Elkarteko aktak eta memoriak.

Helburu espezifikoak	Ekintzak	Denboralizazioa 2019-2020	Arduraduna	Adierazleak
3.3. Ikasle, irakasle eta hezkuntza komunitate osoak genero indarkeriaren aurkako jarrera kritikoa izatea eta hezkidetzaren alde jokatzera	Txoko morean jartzea genero indarkeriaren kasua gertatzen denean. Ikusgai utzi eskolan zinta beltza jartzen, eta zenbatzen.	Ikasturte osoa	Batzordea eta ikasle ordezkariak	Txoko morea eguneratua izatea.
	Pasabideetan emakumeen lorpenak jarri hormairudiekin. Gela desberdinetako amak etor daitezke azaltzera eta gero bere ogibidea eta bere amana kontatzea.(Adostea noiz jarri datak)	Ikasturte osoa	Batzordea eta ikasle ordezkariak Tutoreak	Eskola paisaia eguneratua izatea. Ekintzen ondoren egiten ditugun memoriak.
	Futboleko oreka lortu jolas-orduetan ekipoak egiteko momentuan eta aukera berdinak eman, arauak jarri eta gurasoak jakitun ipini. Hezkidetzako arbitroa.	Ikasturte osoa	Ikasle ordezkariak eta zaintzako irakasleak	Jolas-orduetako arautegi berria.

4. Ebaluazioa eta memoria

Ikasturte bakoitzean balorazio bat egingo da, jarduera bakoitzarentzat erabakitako ebaluazio-adierazleen arabera eta urteko planean jarritakoaren arabera. Ebaluazio horretan egin ez diren jarduerak ere jasoko dira, bai eta horren zergatia, aurkitutako zailtasunak eta hobetzeko proposamenak ere. Ikastetxearen urteko memorian jasoko den memoriaren barruan sartuko da ebaluazio hori.

Ikasturte biak amaituta, proiektua oro har ebaluatuko da; horretarako, helburu orokorrekin lotuta lortu gura duguna kontuan izango dugu. Emaitza handiak lortu baditugu orain arte, urte bi hauen amaieran askoz positiboagoa izango dela uste dugu.

Urte bi barru proiektuan zehaztuta dauden adierazleez gain, helburu orokorra baloratzeko hurrengo tresna erabiltzea pentsatu dugu:

- Familien diagnostikorako galdetegi berria prestatu eta pasatuko da baita etxeko lanen banaketa, ohitura eta pentsaerari buruzko inkesta ere. Emaitzen konparazioa egingo dugu ea aurrera pausurik nabaritzen den ikusteko.

I.ZUBIZARRETAHLHI
2019ko martxoaren 27an